

# BERRIZTARRA

2011ko ABENDUA



## 2012ko Jaiien zain

**G**abon sasoiko jaiak amaitzear daudela, 2012 urteari jaiekin emango zaio hasiera Berrizen. San Antonio Jaiak betiko antzera etorriko dira, baina nobedade batzuk izango ditu eta horietan herritarrek parte hartuko dute.

# udal

erabakiak

- **Ohiko bilkura:**  
azaroak 8 noviembre

## Onartutakoak

Tokiko Garapen agentearen kontratu luzapena Lanbideri eskatzea. Aho batez.

Azaroaren 25eko adierazpen instituzionala "Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna". Aho batez.

- **Ez-ohiko bilkura:**  
azaroak 30 noviembre

## Onartutakoak

2012ko aurrekontu orokorra. Aldekoak 6 (EAJ 5 + PSE 1) + Kontra (Bildu) + Abstentzia 1 (Bildu).

Kreditu transferentzia, kreditu aldaketa proposamena. Aho batez.

- **Ohiko bilkura:**  
abendua 14 diciembre

## Onartutakoak

- Erralde hiltegiaren aldeko manifestua: "Erralde Hiltegia Zabalik". Aho batez.

- **Hurrengo ohiko udal bilkurak**


urtarrilak 18, otsailak 15 eta martxoak 14

*Ez-ohiko eta ohiko bilkuren aktak [www.berriz.org](http://www.berriz.org) kontsultatu daitezke udalbatzak onartu eta gero.*


**Aktak:** [www.berriz.org](http://www.berriz.org)

# 2012 urteko aurrekontua

**GASTOS ANTEPROYECTO PRESUPUESTO 2012**



**INGRESOS ANTEPROYECTO PRESUPUESTOS 2012**



El 30 de noviembre se aprobó el proyecto de presupuesto para el ejercicio del 2012 que asciende a 5.417.433,01 euros. Votaron a favor de las cuentas el Partido Nacionalista Vasco y el Partido Socialista. Cuatro de los concejales de Bildu votaron en contra y una de ellas se abstuvo en la votación.

Comparado con el 2011, el presupuesto se reduce 1,42 % (78.096,00 euros). En su realización se ha analizado el estado de ejecución actual y su gasto real, y basado en esos datos el alcalde presentó en pleno el proyecto de presupuestos para el 2012. Se garantizan de ese modo todos los servicios que desde el Ayuntamiento se han ofrecido este año. Ahora queda esperar la liquidación de cuentas que se pretende aprobar en febrero. Se preve, como todos los años, un remanente que tendrá que decidir la corporación en qué utilizar, marcando prioridades y atendiendo a los diferentes proyectos que surjan de las diferentes áreas de trabajo del Ayuntamiento.


# 2011ko gastuen eta sarreraren aurrerakoa udalbatzak

**Azaroaren 30ean onartu zuen Berriko udalbatzak 2012ko aurrekontu proiektua 5.417.433,01 eurotan. Eusko Alderdi Jeltzaleak**

**eta Alderdi Sozialistak alde bozkatu zuten. Bildun, berriz, lau zingotzik kontra egin zuten eta bakarra absente egin zen.**

Aurreko urtearekin alderatuz, 78.096,99 eurotan murriztu (%1,42 gutxiago) da aurtengo jarduneko aurrekontu proiektua. 2011ko urteko kontuak aztertu eta gero, aurrekontuaren betetze maila aintzat hartu eta gastu errealean oinarritutako kontuak aurkeztu zituen alkateak udal bilkuran. Era horretan, aurtengo

emandako zerbitzu guztiak bermatuko dira urte berrian eta otsaileko kontu likidazioen emaitzen zain geratu dira. Diru-soberrakina izatea aurreikusten du Udalak, eta ondorioz, lehentasunak zehaztu eta arloz arlo proiektu berriak finkatu eta daudenak lehentasunaren arabera zerrendatuko dituzte otsailean.



- Zor publikoa / Deuda publica
- Gobernu organuak / Organos de gobierno
- Administrazio orokorra / Administración general
- Hiri segurtasuna / Seguridad ciudadana
- Gizarte ongizate, Kooperazioa, Berdintasuna eta Udal garapena
- Hezkuntza, Kirola eta Gazteria
- Hirigintza, Etxebizitza eta besteak
- Euskara, Kultura eta Jaiak

Inbertsioak - Inversiones		euroak
<b>Ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioa</b> Instalación para recarga vehículo eléctrico		<b>2.500,00</b>
<b>Informazio prozesuetarako ekipoa</b> Equipos para procesos informáticos		<b>5.000,00</b>
<b>Web orriaren eguneratzea</b> Actualización página web		<b>10.000,00</b>
<b>Fondo bibliografikoak</b> Fondos bibliográficos		<b>6.000,00</b>
<b>Artxibo historikoa</b> Archivo histórico		<b>15.000,00</b>
<b>Azpiegitura eta urbanizazioa-Auzobideak</b> Infraestructura y urbanización- caminos vecinales		<b>17.668,71</b>
<b>Makinaria-brigada</b> Maquinaria-brigada		<b>1.500,00</b>

IRITZI ARTIKULUA

## 2012, AÑO DEL ENVEJECIMIENTO ACTIVO Y DE LA SOLIDARIDAD ENTRE GENERACIONES



Europa y también en nuestro municipio. Muchas veces, y más en épocas de crisis como la actual, las políticas sociales y sanitarias, los medios de comunicación, las instituciones y también todos/as los/as ciudadanos/as de la calle, hablamos del envejecimiento como un problema social y en términos de carga económica y de incremento de gasto.

Olvidamos con frecuencia que las personas alcanzan la jubilación en buena situación física y psicológica y que su aportación al entorno familiar y al entramado social es vital para todos/as nosotros/as. Cuando las personas mayores se relacionan con otras generaciones, con personas de otras edades, son transmisores de valores, fortalecen las relaciones familiares, aportan experiencia y sabiduría y manifiestan que desean seguir siendo parte activa de la vida social.

Desde esta filosofía y teniendo en cuenta que 2012 será el "Año Europeo del Envejecimiento Activo y de la Solidaridad entre las generaciones" el Ayuntamiento de Berriz quiere animar a toda la población a participar en las actividades que con este fin se organicen.

Si queremos hacer realidad los conceptos de "economía sostenible", de "ciudades amigables", de "entornos para todas las edades", debemos tener en cuenta la importancia y la necesidad de contar con un colectivo cada vez más numeroso que dispone de algo valioso: la experiencia de haber vivido y de haber afrontado no una, sino muchas crisis similares e incluso peores que la actual. Estas personas han sabido superar los malos momentos y traernos, hacernos llega a todos, hasta la sociedad en la que vivimos, mucho mejor, sin duda alguna, que la de hace varias décadas.

*Servicio de personas mayores del Ayuntamiento de Berriz*

## GAZTELEKUTIK ESKIATZERA OTSAILEAN

**Urte berriarekin** batera Gaztelekuan batzen diren 30 gazte inguruk ekintza diferenteetan parte hartzeko aukera izango dute. Iaz egin zuten modura, aurten ere, otsailean, egun bateko irteera izango dute Valdezcarayra eskiatzera joateko. Eskiatzen jakin zein ez, 12-16 urte arteko gazteek parte hartu dezakete irteera honetan.

### Jaietan kontzertua

Hori baino lehenago, hala ere, San Antonio jai bereziak biziko dituzte gazteek. Urtarrilaren 13rako musika kontzertu berezia prestatzen dabilta. Gaztelekuan antzerki tailerlean parte hartzen dabilzan gazteentzat diru-iturri izatea nahi dute kontzertua. Ekaineko San Pedro jaietan, kale antzerkia egingo dute berriro eta arropa berriak behar dituzte. Horretarako dirua lortzeko, San Antonio jaietan musika kontzertua eskainiko dute.



Iazko eski irteerako argazkia


## EDUKIONTZI BERRIA

**Rezikletaren eskutik arropak berziklatzeko edukiontzi berria** ipintzeko asmoa du Udalak. Arropak ezezik, jostailuak, liburuak, gailu elektriko txikiak, telefono mugikorak eta gailu elektronikoak jasoko ditu. Horrekin batera, pilak, tonerrak eta Cdak ere utzi ahal izango dira edukiontzi berrietan. Dagoeneko Bizkaian, Uribe Kosta eta Ezkerraldeko herri batzuetan ipini dituzte edukiontzi berriak. Berrizen, 2012ko lehen hiruhilabetekoan izango ditugu.



# Hamairu ikuskizun, Kultur Etxean

**Datorren hiruhilabeteko kultur egitaraua prest dago. Ostiraletan txikitxoentzat emanaldiak, larunbatetan nagusientzat musika eta antzerki emanaldiak eta igandetan eta ostiraletan, berriz, film proiektzioak. Guztira 13 ikuskizun diferente izango da.**




Ikuskizun batzuetan berriztarrek parte hartu edota Berrizen sortutakoak dira. Txintxaun Kolektiboa, Etxeren disko berria edota Durangaldeko Txistularien Eguna nabarmentzen dira.

Txintxaun Kolektiboak bigarren zuzenaz taularatuko du The Full Monty euren azken antzezlan. Abenduaren 17an estreinatu dute film ezagunaren bertsio antzetzua eta publiko aldetik izan duten erantzun ona ikusita, berriro taularatzea erabaki dute. Urtarrilaren 15ean izango da bigarren emanaldi berezia.

ETXE, Iñaki Etxezarragak, bere hirugarren lana kaleratu berri du. "Haize berri bat" izena jarri dio bere lan berriari eta Baga-Biga diskoetxearekin errepikatu du. Bi urte eta gero, orain arteko rock-talde egitura apurto eta kantautoreen moldea hartuta dator berriro. Kultur Etxeko kontzertuan lan berriko doinuak entzungai izango dira urtarrilaren 21ean.

Durangaldeko Txistularien Eguna San Jose egunaren bueltan antolatzen dute eta aurten ospakizunetarako Berriz aukeratu dute. 57. edizioa ospatuko dute martxoaren 18an.

Kultur Etxean izango diren gainontzeko ikuskizunen berri, azken orrialdean, agendan, aurkituko duzu.



## DEL 13 AL 23, FIESTAS DE SAN ANTONIO



**El programa de las fiestas de San Antonio de Olakueta ya está preparado.** Faltan los últimos detalles, para que den comienzo el 13 de enero.

No faltará la degustación de sidra y morcillas para dar comienzo a las fiestas, los partidos de pelota en el frontón, la marcha BTT, la muestra hortofrutícola que este año cumple 31 ediciones, la muestra de artesanía, la actuación de danzas del grupo Iremiñe y la olimpiada rural, que se repetirá este año después de recuperar esta actividad el año pasado.

Junto a las actividades ya tradicionales de las fiestas de San Antonio,




este año habrá tres actividades que se unen a la programación: el día 13 los chicos y las chicas del Gazteleku ofrecerán un concierto con el objetivo de recabar dinero para la compra del vestuario que utilizarán en la obra de teatro de calle que preparan para junio. El día 14, se disputará la final de la Challenge de Bizkaia de Ciclocross en Berriz, organizado conjuntamente por el Ayuntamiento, el grupo ciclista Berriz Bizikletari Elkarte y la Federación Vizcaina de Ciclismo. Y el día 15 de enero, Txintxaun Kolektiboa volverá a representar la obra The Full Monty, adaptación teatral de la famosa película. La entrada costará 5 euros y será a las 19:00 horas en la Casa de Cultura.

# LABURREAN

## Ayuda para Sahara

Como todos los años se hará la recogida de alimentos y productos de primera necesidad para los campamentos de refugiados del Tinduf, colaborando así en la "Caravana Solidaria" a favor del Sahara. Arroz, legumbres, pasta, azúcar, atún, sardinas y compresas son los productos que se recogerán tanto en los centros escolares como en algunos comercios del municipio. La campaña ya está abierta y permanecerá hasta el 22 de enero.

## 2012ko egutegia



Kalean da dagoeneko Udalak 2012rako argitaratu duen kalendariora eta poltsikoko agenda. Egutegirako Berrizko jaietako argazkiak aukeratu dira nagusiki. Poltsikoko agendan, berriz, herriko ondarearen aberastasuna ezagutzeko aukera izango da urte berrian.

## Kirol paisaia euskaldundu

Udaleko euskara sailak urte berrirako asmo nagusienetako bat kirol arloko hizkuntza erabileran euskarak presentzia gehiago izatea sustatzea izango da. Horretarako, Ahize-AEK hizkuntza-aholkularitzarekin batera, egungo egoeraren diagnosis egingo dute. Kirol elkarteak, kirol jardunak eta kirol azpiegiturretan eragingo duten plana diseinatuko da diagnosis ondorioztatzen diren gabezia eta beharrianak kontuan hartuta.

## Bigarren eskuko liburuak

Euskararen Eguna ospatzeko ekitaldi ugari antolatu dira beste urte batez. Berritasunen artean, bigarren eskuko euskarazko liburuen azoka egin zen. Argazkian daudenek, liburuak eramatearen truke liburu berriak erosteko bonua jaso zuten horretarako egin zen zozketan irabazle izanda.



## "Los domingos también" DEPORTE



**El polideportivo Berrizburu ofrecerá cursos intensivos los domingos** por la mañana. Serán sobre todo disciplinas que se practican habitualmente en las instalaciones del gimnasio. Las dos primeras jornadas se harán el 15 y 29 de enero y si la respuesta del público es bueno se seguirá haciendo en los siguientes meses. El precio de las clases serán de 1,55 euros, y mínimo es necesario que se apunten 14 personas.

### Prueba ciclo-cross

Por otro lado, el 14 de enero se disputará una prueba de ciclo-cross organizada por el Ayuntamiento y la asociación ciclista Berriz Bizikletari. La prueba se correrá en diferentes categorías en un circuito diseñado alrededor del campo de fútbol de Berrizburu. Será la última prueba de la Challenging Bizkaia en el que se sabrá los nombres de los ganadores. El año pasado, se recuperó esta prueba ciclista después de 20 años sin disputarse. La asistencia tanto de público como de corredores fue exitosa.



**Errepikatu egingo da familia gazteen programa.** Bikote gazteen hizkuntza ohituretan eraginez, haur euskaldun zaharrek eta elebidunen artean, euskararen erabilera sustatzea dauka helburu programa honek. 19 bikotek parte hartu dute programaren lehenengo fasean, eta urteberrian ere bikote berriei deia egingo zaie. 25-39 urte arteko bikote gazteak izango dira ekimenean parte hartzen. Ezkonberriak, ezkongabeak, haurra izan berri dutenek edota haur txikiak dituzten eta elkarrekin bizi diren bikoteak. Hiru saiotan, bikotearen hizkuntza ohiturak aztertu eta hobetzeko aholkuak jasoko dituzte.

## Premio Bizkaia Kirolak



El Ayuntamiento de Berriz ha recibido el **Premio Bizkaia Kirolak 2011** a la Entidad de la Administración Local por la labor realizada a favor del deporte en el municipio. La entrega del premio se hizo en el Palacio Foral el día 15 de diciembre, al que acudieron junto al alcalde Roland Isoird, algunas personas que en legislaturas anteriores han estado vinculadas al área de deportes del ayuntamiento.



## Gabonetako postal irabazleak

**Olentzero eta Mari Domingiri** postal eta eskutitz lehiaketa antolatzen du urtero Udalak. Ikastetxeetako ehunka ikaslek parte hartzen dute eta aurkeztutako postaletan argazkiko biak izan dira irabazleak. LH-ko lehen mailakoen artean Oihana Ikobalzetak irabazi du. LH-ko 4. mailakoen artean Gotzal Agirrek. Eta eskutitzetan, DBHko lehen mailako irabazlea Iune Ruiz izan da. 16 urtetik gorako saria euskaltegiko erdi mailako goizeko taldeari eman zaio.

## Ganador del concurso fotográfico

Bajo el título **"Txirrindularitza" el durangués Txema Serrano** ha sido el ganador del XII. Concurso Fotográfico. Las instantaneas ganadoras recogen el momento en el que la Vuelta pasó por el municipio. En total se han presentado 16 trabajos esta edición, que se podrán ver hasta el 12 de enero en la Casa de Cultura.



## "Biluzik beldur barik"

**Ane Jareño Mendezek irabazi du** Berrizko Udalak lehenengoz antolatu duen Beldur Barik lehiaketako saria. "Biluzik beldur barik" lanari esker 500 euroko saria eskuratu du. 12 eta 17 urte arteko neska-mutilei zuzendutako lehiaketa izan da eta azaroaren 25ean, Emakumeengako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunarekin bat eginez, Euskal Herrian antolatu den lehiaketa nagusiarekin bat eginez herri mailan eratu den sariketa izan da.



# BERRIZKO AGENDA

## URTARRILAK 12

**Erakusketa:** XIII. Argazki Lehiaketako lanen erakusketa amaituko da. Kultur Etxearen atarian.

## URTARRILAK 13

**19:30.** Jaiak: "Sagardotegi ibiltaria" eta odoloste jana, Olakueta zehar.

**20:00.** Jaiak: Donien Atxa altxatzea, Olakueta plazan.

**Jaiak:** Musika kontzertua eta antzerkia Gaztelekuko portaideen eskutik.

## URTARRILAK 14

**09:30.** Ziklo-kross Saria: Bizkaiko Challengea, II. Berriz Ziklo-kross Saria, Berrizburun.



**17:30.** Jaiak: Korri, Xalto eta Brinoko pailazoak "Entresaka" lanarekin. Olakueta pilotalekuan.

**18:30.** Jaiak: San Antonioko VI. Pilota Txapelketaren finala, Olakueta plazan.

**Jaiak:** Lisker taldearen erromeria. 19:30ean eta 00:30ean Olakueta.

## URTARRILAK 15

**Ikastaro trinkoa** "Igandetan ere" ekimenaren barruan. Goizez, kiroldegian.

**10:00.** Jaiak: BBT Martxa. Geltoki kalean.

**Jaiak:** Eskualdeko XXXI. Barazki eta Fruitu Erakusketa probalekuan eta Artisau Txoko pilotalekuan.

**12:00.** Jaiak: Bildots dastaketa. Olakueta plazan.

**13:00.** Jaiak: Iremiñe dantza taldearen ekitaldia. Olakueta plazan.

**19:00.** Antzerkia: "The Full Monty" antzezlanaren Txintxaun Kolektiboak. Kultur Etxean. Sarrera: 5€.

## URTARRILAK 17

**12:00.** Jaiak. Meza. Antonio Deunaren basilizan.

**19:00.** Jaiak: Nekazal Olinpiada eta askaria, pilotalekuan. Sarrera: 1€.

## URTARRILAK 20-23

**Idi probak:** Antonio Deunaren Proben Sariketa Nagusia.

## URTARRILAK 20

**18:00.** Dantza-antzerkia: "Princesas olvidadas o desconocidas" Karlik Danza Teatroyen eskutik. Kultur

Etxean.

## URTARRILAK 21

**Musika:** ETXEren kontzertua "Haize berri bat" lanaren aurkezpena. Kultur Etxean.

## URTARRILAK 23

**20:30.** Jaiak: Donien Atxa kendu eta Olakueta afaria, Olakueta.

## URTARRILAK 28

**20:00.** Antzerkia: "La Lechuga" antzezlanaren Glu-glu taldearen eskutik, Kultur Etxean.



## URTARRILAK 29

**Ikastaro trinkoa** "Igandetan ere" ekimenaren barruan. Goizez, kiroldegian.

## OTSAILAK 3

**18:00.** Antzerkia: "Hareazko ipuinak" Markeliñeren eskutik. Kultur Etxean.

## OTSAILAK 11

**20:00.** Antzerkia: "Inorako Bidaia" Kukubiltxoren eskutik. Kultur Etxean.

## OTSAILAK 17

**Jaiak.** Inauterietako ekintzak: kalejira, ume jolasak, afaria...



## OTSAILAK 25

**20:00.** Antzerkia: "Carrera de obstaculos" Teresa Caloren eskutik. Kultur Etxean.



Berriz Elizateko  
Udala

## BERRIZKO TELEFONOAK

UDALETXEA.....94 682 40 36  
OSASUN ETXEA .....94 623 61 00  
KIROLDEGIA.....94 682 62 44  
KULTUR ETXEA .....94 682 78 60

ERRETIRATUEN ETXEA .....94 682 48 66  
LEARRETA-MARKINA.....94 682 43 44  
DBH Institutua .....94 682 49 62  
HAURRESKOLA.....94 682 63 39